

HARRIETEK HARANEDERREN *TESTAMENTU*
BERRIAREN EDIZIOARI (1855) EGINDAKO
ALDAKETEN NOLAKOA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA:

ANDREA IPARRAGIRRE LOPETEGI

Euskal Ikasketak, 2020-2021

TUTOREA:

KOLDO ULIBARRI ORUETA

Euskal Ikasketak eta Hizkuntzalaritza Saila

LABURPENA

Joannes de Haraneder, Donibane Lohizuneko apaiz lapurtarrak, 1740. urtean egin zuen *Testamentu Berriaren* lehen itzulpen katolikoa baina ez zen argitaratua izan Maurice Harrietek 1855. urtean Dassanceren laguntzarekin argitaratu zuen arte.

Ikus dezakegu mende bat igaro zela Haranederrek itzulpena egin zuenetik argitaratua izan zen arte. Hizkuntzak etengabe aldatuz doaz eta euskarak ere denboran zehar hainbat eta hainbat aldaketa izan dituela jakina da; hala erakusten digu Harriet eta Dassancek argitaratu zuten edizioak ere. Horrela, lan honen helburua Harrietek ekartzen dizkigun aldaketen nondik-norakoak aztertzea izango da. Lan hau burutzeko, Robinen edizioa, Patxi Altunak 1990ean egindako edizioa (hau izango da oinarriztat izango duguna) eta Harriet eta Dassancerena erabili ditugu, hasierako eta amaierako orrialdeak hitzez-hitz eta esaldiz-esaldi erkatuz, agertzen diren aldaketak bilduz. Ondoren aldaketa horiek zeri dagozkion eta horren arabera tauletan (eranskinean aurki ditzakegu hauek) sailkatu ditugu: grafiari eta fonetika-fonologiari, izenaren edota aditzaren morfologiari dagozkion, sintaxiari edo aldaera lexikoak diren arabera. Gero, aldaketa horiek behatu eta sistematikoak direnak hautatu eta aztertu ditugu; lan honek eskatzen duen neurria dela eta, ezinezkoa litzateke aldaketa guztiak azaltzea.

Aintzat hartu behar dugu Haraneder beraren edizioa ez dela berreskuratu, 1770. urtean Robin delako apaiz batek eginiko kopia iritsi zaigu gurera. Ikusiko dugunez, ez dakigu Robinek Haranederren edizioa bere horretan kopiatu zuen edo aldaketak egin zizkion, hori jakiteko Haranederren edizioa izatea ezinbestekoa baita.

Edizioei dagokienez, Robinen edizioan Altunak aipatzen ez dituen zuzenketa batzuk egin direla ikusiko dugu. Hizkuntza ezaugarriei dagokienez berriz, Haraneder Euskara Zaharraren garaian kokatzen da; Harriet berriz, Lehen Euskara Modernoko idazlea dugu. Ondorioz, lan honetan ikusiko dugu Harrietek XIX. mendean gertaturiko hizkuntza idatziaren aldaketak bere egiten dituela: batetik, garaiko ikuspegi garbizalea ikusiko dugu, Haranederrek dakartzan hainbat erdal hitz euskal oraindarengatik ordezkatzeko baititu. Bestetik, ekialdeko hizkeretatik hedatu diren hainbat ezaugarriren alde egiten duela ikusiko dugu. Horrez gain, Harrietek, Haraneder baino autore berriagoa den heinean, berrikuntzak ekartzen dizkigun arren, batzuetan ikusiko dugu

lapurtera klasikorantz (nolabait esateko, "Axularren hizkerarantz") ere lerratzen duela testua, Haranederren berrikuntza batzuk kenduz eta lapurtera klasikoko testuetan ikusten dituen ezaugarriak ekarriz. Tamalez, hainbat aldaketatan ezin izan dugu zergatia aurkitu; alabaina, lan honetan hauek ere bildu ditugu interesgarriak izan daitezkeelakoan.

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| SARRERA | 5 |
| 1. TESTUINGURUA | 7 |
| 1.1. Haraneder, bizitza eta obrak | 7 |
| 1.2. <i>Jesu Christoren evangelio saindua</i> : Eskuizkribuak eta edizioak | 9 |
| 2. EZAUGARRIEN AZTERKETA | 12 |
| 2.1. Aldaketa grafiko eta fonetiko-fonologikoak | 13 |
| 2.2. Aldaketa morfologikoak | 17 |
| 2.2.1. Izen morfologiari dagozkion aldaketak | 17 |
| 2.2.2. Aditz morfologiari dagozkion aldaketak | 20 |
| 2.3. Sintaxian izandako aldaketak | 22 |
| 2.4. Aldaketa lexikoak | 23 |
| 3. ONDORIOAK | 26 |
| 4. BIBLIOGRAFIA | 29 |
| 5. ERANSKINA | |

SARRERA

Lan honetan edizio baten atzean dagoen lana ikusiko dugu, zehazki 1740. urtean Joannes de Haraneder, Donibane Lohizuneko apaizak euskarara itzuli zuen *Testamentu Berria* eskuizkributik eta handik mende baino geroago, 1855ean “laphurtar bi jaun aphecec” (Harriet eta Dassancek) argitaratu zuten *Testamentu Berriaren* edizioaren artean dagoen lana. Honela, “Euskara Zahar eta Klasikoaren” azken garaiko idazle baten lana (ik. Mounole & Gómez, 2018), “Lehen Euskara Modernoaren” baitan bete betean kokatzen den Harriet bezalako idazle batek argitaratzen du (ik. Urgell, 2018).

Bi garaietako idazleak ditugu, bata egile eta besteak argitaratzaile; horregatik gure nahia da Harriet eta Dassancek¹ hauen edizioan egindako aldaketa horien nondik-norakoak aztertzea: jakina da aldaketak egin zituztela (ik. Lafitte, 1964), baina oraindik egiteke dago aldaketa horien analisi linguistikoa; hau da, zehaztea ea zein motibazio izan zituzten moldatzaileek hauek egiteko: irizpide erlijiosoak, estilistikoak, hizkuntzazkoak... Guk lehenengo hurbilpen bat egin nahi dugu, lan honen mugak kontuan izanik, euskarari dagokionez, ea zernolako irizpide linguistiko jarraitu zituzten aurkitzen dizkiegun aldaketa horiei, bereziki arreta historian jarritz: euskarak urte horien baitan izan dituen aldaketa kronologikoak eraginda ote dauden ikusteko edo hizkuntza eredu jasoaren lerraketa geografikoa aldatu ote delako (cf. Urgell, 2018: 654).

Ezaguna denez, Haraneder berak idatzi zuen eskuizkribua ez da gure eskuetara iritsi, eta gaur egun, handik hogeita hamar urteetara (1770ean) Robin apaizak egindako kopia baino ez dugu ezagutzen. Kopia hori baliatu zuen Patxi Altunak edizioa egiteko eta hauxe baliatu dugu guk ere lan hau burutzeko (Altuna, 1990). Bestetik, Harriet-Dassancek 1855. urtean egin zuen edizioaren ale batez baliatu gara² Altunaren edizioarekin erkatzeko. Hala ere, hainbatetan Robinen eskuizkribura jo behar izan dugu, grafian bereziki Haranederren garaiko Euskara Zaharrean behar ez luketen ohiturak aurkitu ditugulako: eskuizkribuaren behaketa zuzenak erakutsi digu beste esku batek gainetik eginiko zuzenketak direla grafia modernoago horiek eta Altunak gainetiko

1 Hemendik aurrera 1855eko edizioaren egile bezala Harriet bakarrik aipatuko dugu, *OEhk* berak eta Lafittek (1964) egiten duten bezala, aipatzeko ekonomia kontu huts bategatik.

2 Loiolako Jesuiten bibliotekan gordetzen den aleaz baliatu gara, zehazki, interneten kontsultagarri dagoena: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/29525>

aldaketa horiek markatu gabe dakartza bere edizioan. Hau garrantzitsua izan daiteke, ez baitakigu ziur Harrietek edizioa egiterakoan eskuizkribuak zuzenketa horiek zituen ala ez, baina lan honetan zehar ikusiko ditugun arrazoiengatik pentsa dezakegu 1855eko edizioa zuzenketa horien aurretik (edo beste eskuizkribu bat baliatuz) egin zuela (ikus.§2.1).

Lana burutzeko, Altunaren edizioko hasierako 5-20 orrialdeak eta 211-216 orrialdeak hautatu ditugu (Harrieten edizioko 1-30 eta 424-447 orrialdeei dagokiena). Harrieten edizioak ebanjelioak baino ez ditu eta horregatik hautatu ditugu orrialde hauek, hasierako eta bukaerako atal bat aztertu ahal izateko. Lehen orrialdeak “San Mateo”ren ebanjelioari dagozkio eta amaierako orrialdeak “Ion Done Ioan”en ebanjelioari. Horrez gain, hainbat adibide aztergai ez ditugun orrialdeetan ere bilatu behar izan ditugu aztertutako ezaugarriak sistematikoak ziren ala ez ikusi ahal izateko.

Lan metodologia honako hau izan da: hasteko, orrialde horiek hitzez-hitz eta esaldiz-esaldi erkatu ditugu eta aldaketa horietako bakoitza taulatan sailkatu: aldaketa grafiko eta fonetiko-fonologikoak, izen morfologia, aditz morfologia, sintaxia eta lexikoa, (eranskin gisa daude taula horiek).

Ondoren, aldaketa horiek sistematikoak diren ala ez behatu eta sail bakoitzaren barruan sistematikoak direnak elkarrekin bildu ditugu. Azkenik, sistematikoak diren aldaketa horien nondik-norakoak aztertu ditugu bibliografiaren laguntzaz. Esan beharra dugu, lan honek eskatzen duen neurriagatik ezin izan ditugula gertatu diren aldaketa guztiak aurkeztu eta horregatik bakarrik sistemakoak direnak aztertu ditugula. Hala ere, aurkitutako aldaketak eranskinean emango ditugu, aurrerago norbaitek aztertu nahi izango balitu.

Adibideak aurkezteko, *He* erabiliko dugu Haranederren testutik zuzenean hartutako adibideak azaltzeko, beti ere kontuan harturik Altunaren edizioaz baliatuko garela horretarako. Harriet eta Dassanceren edizioari erreferentzia egiteko, ordea, *H* erabiliko dugu; eta noizbehinka kontsultatuko dugun Robinen eskuizkribuko aldaera aipatzeko (ik. §1.2), berriz, *Rob* izango dugu laburdura. Hirurak Biblia aipatzeko erabiltzen den metodoa jarraituz aurkeztuko ditugu, noski; hau da, idazlearen laburdura, kapitulua eta txatala. Ondorengo adibideetan ikus dezakegu: *darozquitçuedanac* (He; Jn 14,10) vs. *darozquitçuetanac* (H; Jn 14,10). Laburdurekin jarraituz, *Orotariko Euskal Hiztegia*

adierazteko *OEH* erabili dugu, *lapurtera klasikoa* adierazteko *LK* eta euskalkietarako, lapurtera *L*, behe-nafarrera *BN*, goi-nafarrera *GN* eta zuberera *Z* izango dira, ohikoa denez.

Erkaketa eta aldaeren azterketarekin hasi aurretik, honekin batera, lehenik eta behin aztergai dugun testuinguruan kokatzeko Haranederren bizitza eta obrak azalduko ditugu (§1.1), baita *Testamentu Berriak* izan dituen edizioak ere (§1.2). Ondoren, aldaketen azterketari ekingo diogu (§2), lehen aipaturiko hizkuntza atal bakoitzari bere atala eskainiz; eta amaitzeko, lan honen buruan lortutako ondorioak (§3) azalduko ditugu.

1. TESTUINGURUA

1.1. Haraneder, bizitza eta obrak

Donibane Lohizunen, Lapurdiko itsasbazterrean kokatzen den herrian jaio zen Joannes de Haraneder 1669. urtearen inguruan; baina bere bizitzaz ezer gutxi dakigu: idazlea izan zela eta bizi zelarik bi libururen euskarazko itzulpenak argitaratu zituela: 1749. urtean *Philotearen* itzulpena eta 1950. urtean *Gudu izpirituala* agertu zituen, biak Okzitaniako Tolosan (Toulouse). Horrez gain, *Testamentu Berriaren* euskarazko lehen itzulpen katolikoa egin zuen 1740. urtean, *Jesu Christoren Evangelio Saindua* izenburuarekin eta bertan “Lau ebanjelioak”, “Apostuluaren Eginak”, “Gutunak” eta “Apokalipsia” jasotzen ditu, hots, *Testamentu Berria* osorik itzuli zuen. *Testamentu Berriaren* itzulpen hau argitaragabe geratu zen, ahalik eta 1855ean Harrietek eta Dassancek *Iesu-Christo gure Iaunaren Testament Berria* izenburupean argitaratu zuten arte, hainbat aldaketekin esan denez (ik. §1.2 eta cf. §3).

Hiru obrak egile berarenak direla esan dugun arren, zalantzak izan dira euskal literaturaren historian itzulpen honen egiletasuna esleitzeko orduan, ikerlariak ez baitzuten argi ea *Philotea* eta *Gudu izpirituala* itzuli zituen Haraneder bera ote zen Testamentuaren itzultzailea ala beste norbaiten lana ote zen.

Lafittek Haranederren obren orotasunari begira, lehenago Duvoisinek ere ikusitakoaz ohartu zen: *Philotea* obran “Joannes” izena dugun bitartean, 1855eko edizioan J. N. izen bikoitza dagoela (eskuizkribuak, ordea, “Jaun Haraneder apez[a]”

zuen); beraz, ez zekiten Harrietek J. N. hori nondik atera zuen (Lafitte, 1964: 9). Lafittek hasiera batean, XVII. mendeko Haraneder fraide batengan pentsatu zuen (Lafitte, 1975: 397), baina gero ohartu zen ezin zela horrela izan: XVII. mendeko Haraneder fraide horrek ezin izan zituen XVIII. mendean itzulpenak egin, ordurako hilik baitzegoen; gainera, itzulpen hauek egin zituena ez zen fraidea, apaiza baizik.

Baina egoera gehiago nahasteko, hainbatek *Gudu izpirituala* liburua ere Haranederrek idatzi ez zuela esan izan du, *Gudu izpiritualaren* liburuak hasieran Haraneder beharrean N^l. I^b. D^r hizkiak baititu. Daranatzek (1910) adibidez, Noël-Joseph Duvergier izen deiturak irakurri zituen, XVIII. mendean izandako apaiz bat, eta horrexegatik esan zuen *Gudu izpiritualaren* egilea ez zela Jean Haraneder izan. Lehenagoko Duvoisinek (1876, ik. Altuna, 1987) ere Duvergierrena zela planteatu zuen. Lafitte baina, ez dator bat bi ikertzaile hauekin, Haranederrek *Philotearen* hitzaurrean *Gudu izpiritualaren* argitalpena egingo zuela esaten baitu eta gainera, *Philotea* eta *Gudu izpiritualaren* hizkerak berdinak dira. Ondorioz, Lafittek (Lafitte, 1931: 88 *ap.* Altuna, 1990: X) itzultzailea Haraneder izan zela planteatu zuen eta Duvergierrek agian edizioa argitaratzen lagundu zuela.

Azkenik, Altunak egindako *Testamentu Berriaren* (1990) hitzaurrean Duvoisinin eta Daranatzek (pisuzko arrazoirik gabeko) iritzia gezurtatzeko hainbat argudio eskaintzen ditu. N^l. I^b. D^r hizki horiek Duvergierren izen-abizenekin bat etortzea ez da pisuzko arrazoia *Gudu izpiritualaren* egiletasuna esleitzeko: Vinsonek, adibidez, “Noble Jean Haraneder Doctor” irakurri zuen. Horrez gain, Duvergier 1710. urtean jaio eta 1734. urtean apaiztu bazen, gazteegia litzateke 1750ean itzulpen lan bat argitaratzeko, garai haietako euskal idazleek liburuak argitaratzen zituzteneko adina zein zen ikusita (Altuna, 1990: XI).

Beraz, argi legoke *Philotea* eta *Gudu izpirituala* Haranederren lumatik atera zirela, baina bi hauen eta *Testamentu Berriaren* itzultzailea pertsona bera ote den, hori beste kontu bat da. Aurrez aipaturiko Joannes Haraneder Donibane Lohizuneko fraideaz gainera, Altunak (1990: XII) hirugarren Joannes Haraneder bat proposatzen du, XVIII. mendean Donibane Lohizunen garai bertsuan jaiotako bi Joannes Haraneder baitziren, Duvoisinek idatzitako “Bibliographie Basque” eskuizkribuan esaten duenez (Duvoisin, 1876: 85, *ap.* Altuna, 1990: XII): kapitainak hasiera batean pentsatzen zuen *Philotea* eta

Lau ebanjelioen Joannes de Haraneder itzultzailea pertsona bera zirela, baina Harrietek J. N. idatzi izanak iradoki zion agian beste Haraneder bat izan zitekeela *Testamentu Berriaren* itzultzailea. Zalantza horiek argitzeko, Donibane Lohizuneko Mendionde apaizari, eskuizkribuaren jabeari,³ galdetu beharko litzaiokeela dio.

Altunak (1990) Robinen eskuizkribua ikusirik argitu zuen kontua, ez baitago Harrietek gehituriko *N* horren inongo arrastorik, eta ez du beharrezko ikusten *Philotea* eta *Gudu izpiritualaren* Joannes Haranederretik kanpoko itzultzaile bat proposatzea, berriz ere aldarrikatuz J. N. hori ez dela pisuzko arrazoi egiletasuna zalantzan jartzeko: Harrietek aldaketa asko egin zituenez eskuizkribuan hura guztiz itxuraldatuz, litekeena da izenean ere aldaketak egin izana. Hala, pisu handiagoko arrazoirik izan ezean, Haraneder bera litzateke hiru obren egilea.

Nola ez, eskuizkribuaren kanpo-historian gertaturiko gorabeherak hizkuntzazko azterketa sakon batek argi zezakeen hizpide dugun *Testamentu Berriaren* egiletasunaren auzia. Gure lana bestelakoa izango da baina, eta Altunaren hipotesia gure egingo dugu: Joannes Haranederrek, *Philotea* eta *Gudu izpirituala* liburuen itzultzaile berak, itzuli zuela Robinen kopian (ik. §1.2) heldu zaigun *Testamentu Berria*, ondoren Harrietek eta Dassancek erabili zutena 1855ean euren edizioa argitaratzeko.⁴

1.2. *Jesu Christoren evangelio saindua*: Eskuizkribua eta edizioak

Egiletzaren auzia zein egoeratan dagoen ikusirik, heldu diezaiogun zuzenean Joannes Haranederrek itzultitako *Testamentu Berriari*, izandako historia (ahal bezala) berreraikiz. Joannes Haranederrek berak diosku “Aitcin-Solhasean” *Testamentu Berriaren* euskarazko lehen itzulpen katolikoa egin zuela: “...ondicoz orai arteraiñoocan nihor ez da içatu iracurtcerat eman içan daroenic [Escaldunei] bere aita onaren

3 Lafitten funtsean (Baionan) gordetzen den Robinen eskuizkribuak *exlibris* hau dakar aurreko azalaren barrualdean: “Mendionde, Vicaire, / à Saint-Jean-de-Luz”; beraz, badakigu Duvoisinek eskuizkribu honi egiten diola erreferentzia.

4 Jakitun gara gure lanak ondorioak izan ditzatekeela Altunak planteaturiko hipotesian: frogatzerik badugu Harrietek Robinen kopiaz aparteko beste eskuizkribu ezezagun bat erabili zuela, agian hartan bai “J. N. Haraneder” sinaturik agertu ahalko zen. Hala ere, gure azterketak ez digu nahikoa argudio eskaini beste eskuizkribu bat erabili zuela proposatzeko (cf. aurreko oin-oharra), eta Altunaren hipotesia gure egin dugu. Agian konparaketa sakonago batek bestelako datuak erakutsiko lizkiguke.

Testamenta escararat, escaldun guciec adi deçaqueten lengoayarat, itçulia” (Altuna, 1990: 1).⁵ Dakigunez, aurretiaz *Testamentu Berria* euskarara itzuli zuen Leizarragak, eta Haranederrek “Aitcin-Solhasean” bertan aipatzen du "pozoituriko eta Kalbiñen sekta izurritzatuan egindako itzulpen" bezala.⁶ Horregatik, Haranederren apezpiku zenak ez zuen begi onez ikusten Leizarragaren itzulpen hura eta itzulpen berri bat, “garbiqui” eta “fidelqui”, egiteko beharra erakutsi zuen: “gure jaun Apezpicuac [...] desiraturic diocesa huntaco cembeit aphecec Testament berrico liburu sacratu hau escararat garbiqui eta fidelqui itçul deçaten, entseyatu içan gare...” (Aitcin-solhasa: 2). Horregatik egin omen zuen Haranederrek itzulpen hura, eta horregatik diogu Haraneder izan zela *Testamentu Berriaren* euskarazko lehenengo itzulpen katolikoa egin zuen apaiza.

Itzulpen hau ez zen orduan argitaratu; aurrez esan bezala, 1855. urtera arte itxaron behar izan zuen Harrietek, Dassanceren laguntzarekin, partez behintzat argitara eramateko. Hori gutxi balitz, ez dugu Joannes de Haranederrek berak 1740. urte inguruan idatzi zuen eskuizkribua gorde, haren orde, Uztaritzeko apaiztegian gordetzen zen eskuizkribu bat dugu, “1770: *Joannes Robin apheçac iscribatua.*” sinadurarekin (Lafitte, 1964: 8).

Honako hau dugu Haranederren testuaren lehen lekukotasuna, 1770. urtean Jean Robin apaizak eginiko kopia. Ez dakigu Robin apaizak Haranederren edizioan aldaketak egin zituen ala ez, horretarako Haranederren edizioa eskura izan behar baikenuke. Edizio honetan, Haranederren “Aitçin-Solhasa”, “Lau ebanjelioak”, “Apostuluen Eginak”, “Gutunak” eta “Apokalipsiak” biltzen dira, hots, Testamentu Berri katolikoan diren liburu guztiak. Aurrez ikusi bezala, Duvoisinek *Bibliographie Basquen* aipatu zuen Mendionde delako apaiza zela eskuizkribuaren jabea. Robin 1821. urtean hil zelarik, orduan iritsi zen eskuizkribua Mendionde haren eskuetara, Robinek eskuizkribuaren oinordeko izendatu baitzuen. Dassancek (1801-1858) Mendionderengandik jaso zuen eskuizkribua eta Maurice Harriet (1814-1904) apaiz lapurtarrarekin batera argitaratzeko bidea hartu zuen. Honako hau, Mendionde apaizak idatziriko eskutitz bati esker dakigu (Altuna, 1990). Ondoren, eskuizkribua Uztaritzeko

5 Eskuizkribuko testuari erreferentzia egingo diogun bakoitzean, besterik esan ezean, Altunaren 1990eko edizioko orrialdeez baliatuko gara.

6 Ezaguna da Axularrek eta Materrak behintzat Leizarragaren obra ezagutu eta erabili zutela (Urgell & Ulibarri, 2020: 11-12).

apaiztegian egon omen zen, bertan aurkitu baitzuen Lafittek (1964: 8); gaur egun, Baionako Mediathekan gordetzen da eskuizkribu hau, Lafitteren ondarean.⁷

Hala, Harrietek eta Dassancek, Robinen eskuizkribua baliatuz, Haranederren itzulpen honen “Lau ebanjelioak” argitaratu zituzten *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria lehenago J. N. Haraneder, Done Ioane Lohitsuco Jaun aphez batec escuararat itçulia; Orai artha bereci batequin, garbiquiago, lehembicico aldicotçat aguer-aracia, laphurtar bi iaun aphecec; iaun aphezpicuaren baimenarequin* izenburu luzearekin, 1855. urtean, Baionako E. Lasserre inprimategian. Liburu honen hasieran “Meça sainduco othoitçac” daude, ondoren Haranederren Ebanjelioen itzulpena eta azkenik hiztegitxo bat. Edizioa “Lau ebanjelioetara” mugatu zen eta gainerako liburuak argitaratu gabe geratu ziren. H. Knörren iritziz (2003), “Lau ebanjelioak” soilik argitaratzeko arrazoia litzateke lanaren zama arintzea.

Hasieran aipatu dugu, baina gure lanaren muina izango denez, berretsi behar dugu: Harrietek hainbeste aldatu zuen eskuizkribua non ezin esan daitekeen Uztaritzeko eskuizkribu bera denik (cf. Lafitte, 1964: 16). Hala ere, nori dagozkio aldaketa hauek: Harrieti, Dassanceri ala biei? Hainbat datu ditugu erabakitzeke Harriet izan zela edizioaren arduradun bakarra eta, ondorioz, aldaketen egilea: Duvoisin edizioaren garaikideak idazten du Haranederren obra Harrietek errebisatu eta Dassancek lagundu egin zuela (Knörr, 2003: 158).⁸ Vinsonek ere berdintsu, Dassancek eskuizkribua eskuratu eta argitaratzen lagundu zuela soilik, edizioaren egilea Harriet delarik (Vinson, 1984: 268 *ap.* Knörr, 2003: 158). Azkenik Daranatzek Harrieten beraren lekukotza ematen digu Abadiaren bitartez, argi utziz Harriet izan zela argitalpen lana bere gain hartu zuena:

“L'exemplaire de Haraneder de la Nationale, coté 2 basque, 898, appartient à la collection d'Antoine d'Abbadie. L'abbé Harriet y a mis la dédicace suivante: “Hommage de l'auteur à Monsieur d'Abbadie, de l'Académie des Inscriptions. Signé: Maurice Harriet”. À la suite de cette dédicade, Antoine d'Abbadie a ajouté de sa main: “N.B. Le 9 Septembre 1892, M. L'abbé Maurice

7 LAF.311 signaturarekin godertzen da Baionan, baina internet bidez kontsulta dezakegu ondoko helbidean: https://mediatheque.bayonne.fr/iguana/www.main.cls?url=search&p=6d96bc91-7382-4e7b-8f18-f40562b734fd#anchor_RecordFull

8 “L'ouvrage de Haraneder a été complètement remanié par l'abbé Maurice Harriet, conseillé sur les questions qui présentaient des difficultés par l'abbé Dassance, d'Ustaritz, chanoine à Bayonne”.

Harriet me dit que lui seul a travaillé à ce livre, l'abbé Dassance n'en ayant rien fait, sauf le titre et l'intention" (Daranatz, 1908: 295, *ap.* Knörr, 2003: 158).

Azterketaren atalean gehiago sakonduko dugu bi testuen arteko desberdintasunen inguruan (§2), baina amaitu aurretik beste edizio batez hitz egin behar dugu, Euskaltzaindiak 1990ean argitaratu zuen edizioaz. Lafitte bera izan zen eskuizkribua Euskaltzaindiari eskaini ziona Uztaritzen egin zen bilera batean (ik. Altuna, 1990). Mitxelena hartu behar zuen edizioaren sarrera eta oharren ardura norbaitek makinatuz gero. Gasteizeko idazkari zen Itziar Rekaldek hartu zuen makinatzeko ardura, baina amaitu zuenerako Mitxelena hila zen eta Altunak bere gain hartu zuen makinatutako edizioa aztertu, osatu, okerrak zuzendu, oharrak ezarri eta amaieran dagoen hiztegitxo prestatzeko ardura (Altuna, 1990: XV). Horrela, Euskaltzaindiaren eskutik 1990. urtean Joannes de Haranederren *Jesu Christoren Evangelio Sainduaren* itzulpen osoa argitaratu zen, Robin apaizaren eskuizkribuan diren atal guztien edizioarekin.

2. EZAUGARRIEN AZTERKETA

Atal honetan, konparaketatik ateratako hainbat bilakabideren azterketa ekarriko dugu. Ez ditugu aldaketa guztiak hona ekarriko, baina bai interesgarrien iruditu zaizkigunak: batzuetan sistematikoak direlako bakarrik aipatuko dira, baina bereziki interesatu zaizkigu XVIII. mendeko Haranederren eta XIX. mendeko Harrieten euskara erkatze garrantzitsutzat hartu ditugunak eta haietan jarriko dugu arreta. Lanaren beharrezko tamainak ez digu utzi adibide guztiak testura ekartzea, eranskinean dituelarik irakurleak.

Ahaleginean, saiatuko gara Harrietek zergatik egiten dituen aldaketa hauek azaltzen, baina beti ezin izan dugu zergatia aurkitu; alabaina, gutxienez deskribatzea pentsatu dugu, egindako lana inorentzat interesgarri izan dakiokelako. Honen harira, lanaren eranskinean erkaketan aurkitu ditugun aldaketa guztien zerrenda izango du irakurleak, testuan aipatuak egon zein ez.

Nola ez, ondoren datozen ezaugarriak grafia eta hotsak, izen eta aditz morfologia, sintaxia eta lexikoan sailkatuko ditugu, ohiko denez honelako lan filologikoetan.

2.1. Aldaketa grafiko eta fonetiko-fonologikoak

Haranederren garaian, Euskara Zaharraren garaian, euskal grafia erderen arauen menpe genuke, gaztelania, frantsesa edo gaskoiaren menpe alegia (Mounole & Gómez, 2018: 490), baina Lehen Euskara Modernoan (Harrietek bere edizioa paratzen duen garaian), dagoeneko euskarazko grafia propio bat hobetsi nahi da: irizpide hau ikusten da Harrietek egindako aldaketa honetan, frantsesekotik letorren <ss> bikoitza kentzen baitio Haranederren testuari: He *Manasse* (Mt 1,10), *hassi* (Jn 19,6) vs. H *Manases* (Mt 1,10), *hasi* (Jn 19,6).⁹

Beste batzuetan, ordea, Haranederrek grafia berriago bat¹⁰ hobesten duela dirudi: kontsonantea <j> grafemaren bidez adierazten du, Harrietek berriz, <i> darabil: *Jesus Christo* (He; Mt 1,1) vs. *Iesu-Christo* (H; Mt 1,1), *jarriric* (He; Mt 2,11) vs. *iarriric* (H; Mt 2,11), etab. Hala ere, eskuizkribua zuzenean begiratu, ikusten dugu Robinen lekukotasunean gaineratik idatzitako zuzenketak direla <J> horiek.¹¹ Beraz, Harrietek Haranederren eskuizkribuan den <i> grafema mantenduko zukeen eta ondoren norbaitek grafia modernotu eta <j>z aldatu zuela. Esku anonimo batek Robinen eskuizkribua modernotu duela erakusten digu ondorengo adibide honek ere: Altunaren edizioan *utzi* (He; Mt 3,15) agertzen da baina Robinen eskuizkribuan ikus daiteke <z> berria dela; hark *utci* dakar eta ondoren norbaitek gaineratik <z> idatzi zuela. Nor izan zen ez dakigu, baina Harrietek ere *utci* zaharra duenez pentsa genezake edizioa egin osteko jaberaren batek egingo zuela (Uztaritzeko apeztegiko norbaitek, agian? cf. §1.2).¹²

Beste aldaketa sistematiko bat ikus dezakegu <y> eta <i> grafemen artean. Haranederrek <y> grafema zaharra darabil eta Harrietek berriz <i> modernoagoa (cf.

9 Aipamenak egiteko orduan, oro har, Haranederren eta Harrieten adibide bakoitzean Bibliako txatala ekarriko dugu, nahiz eta normala denez, adibide bata eta bestea leku berekoa izango dela: badakigu batzuetan errepikakorregi gerta daitekeela horrela jokatzeari, baina adibideen kopurua kontuan harturik, pentsatu dugu argiago geratuko dela adibide bakoitzak dagokion txatala alboan izatea.

10 1680. urtetik aurrera, euskal idazleek <j> eta <i> grafiak adiera ezberdinetarako espezializatu zituzten, lehenengoa kontsonantea adierazteko eta bigarrena bokalerako, frantsesaren ortografian eginiko aldaketen ondorioz (Mounole & Gómez, 2018: 492).

11 Robinen eskuizkribuko 10. orrialdean ikus dezakegu bereziki gertakari hau, argi ikusten baita han agertzen diren <J> guztiak gaineratik beste tinta batez berridatziak daudela.

12 Altunak bere edizioan ez du gaineratik egindako zuzenketa hauei buruzko aipamenik egiten, bidebatez.

Urgell, 2018: 610): *anayac* (He; Mt 1,2) vs. *anaiac* (H; Mt 1,2), *heyagoraz* (He; Jn 19,12) vs. *heiagoraz* (H; Jn 19,12), etab.

Txistukariei dagokienez, Euskara Zaharreko Iparraldeko joera ikusten dugu (Mounole & Gómez, 2018: 493): Txistukari frikari eta afrikatuak grafikoki bereizten dira Euskara Batura heldu zaigun <t> baliabidearekin. Txistukari lepokariari dagokionez, bai Euskara Zaharrean eta baita Lehen Euskara Modernoan ere <c> grafema dugu *i* eta *e* bokalen aurrean eta <ç> *a*, *o* eta *u* bokalen aurrean; sistema hau darabil Haranederrek eta sistema bera du Harrietek ere. Nola ez, forma aldaketa morfonologikorik gertatzen bada, sistema grafiko horren arabera moldatuko du Harrietek: *cedintçat* (He; Jn 17,12) vs. *çadintçat* (H; Jn 17,12), etab. Robinen lekukotasunean eta Harrieten edizioan ezaugarri hau betetzen dela ikus dezakegu.¹³

Apikari afrikatua <ts> grafemaren bidez adierazten zen Euskara Zaharrean, aurreko garaian erabil zitezkeen <x> eta <tx> grafemak alde batera utzirik (Mounole & Gómez, 2018: 493). Haranederren testuan oraindik erabilera arkaiko hura aurkitu dugu *otxo* (He; Mt 7,15), *sinhexten* (He; Jn 14,1) edo *sinhetxi* (He; Jn 17,8) adibideetan, Harrietek jada sistema modernora ematen duena: *otso* (H; Mt 7,15), *Sinhesten* (H; Jn 14,1), *sinhetsi* (H; Jn 17,8). Ondoko adibideak ere, *gaixtoen* (He; Mt 5,45) vs. *gaichtoen* (H; Mt 5,45), Haranederrek txistukari palatalaren grafia zaharr(ago)ari eusten diola erakusten du, Harriet Iparraldeko tradizioari atxikitzen zaion bitartean (Mounole & Gómez, 2018: 493).

Maileguen grafiari dagokionez, lapurtera klasikoko autoreek grafia etimologikoa hobesten dutela ematen du (Mounole & Gómez, 2018: 494), eta hori da Haranederrengan ikusten duguna, mailegatutako hitzetan hizkuntza emailearen grafia mantentzen baitu; Harriet, ordea, idazkera fonologikora hurbilduko da (Urgell, 2018: 614): *Boozec* (He; Mt 1,5) vs. *Boocec* (H; Mt 1,5), *Achazec* (He; Mt 1,9) vs. *Akhacec*

13 Altunaren edizioa hutsean harturik, pentsa genezake Robinen eskuizkribuan <z> ere aurkitzen dela bokal aurrean (vs Harrieten <c> eta <ç>); hala ere, lehen aipatu dugun esku anonimoak egindako modernizazio berantiarra da horren zergatia ondoko adibidean ikus dezakegunez: *gaitzetsi* (< leh. *gaitcetsi*; He; Jn 17,14) vs. *gaitcetsi* (H; Jn 17,14).

(H; Mt 1,9), *Ezechiazec* (He; Mt 1,10) vs. *Ezekhiasec* (H; Mt 1,10),¹⁴ *dizcipuluez* (He; Jn 18,19) vs. *dicipuluez* (H; Jn 18,19), etab.

Euskal jatorriko hitzetan ere berdin jokatzeko dute, Haranederrek grafia etimologikoa hobesten du *beçanbatean* (He; Mt 3,11) eta Harriet, berriz, grafia fonetikora hurbiltzen da: *beçambatean* (H; Mt 3,11). Hitz-elkartu eta eratorrietan ikus dezakegu gertakari hau bereziki. Haranederrek, XVIII. mendeko idazle gehienek bezala, ez ditu aldaketa morfologikoak egiten, bere horretan uzten ditu. Harrietek berriz, aldaketa fonetikoak ekartzen ditu: *arraĩñ çaleac* (He; Mt 4,18) vs. *arrantçaleac* (H; Mt 4,18), *urde aldetarat* (He; Mt 8,32) vs. *urdalderat* (H; Mt 8,32), etab.

Grafia etimologikoari loturik dago hau ere, txistukaria leherkari ahostunaren ondoan agertzean gertatzen den leherkaria ahoskabetzea XVI. mendetik aurrera emana zen idazle lapurtarren grafian (Pikabea, 1993: 183), eta gauza bera genuke bi txistukari biltzen zirenean, *-z + z- > -tz-* izango dugu XVI. mendetik aurrerako autoreengan (*ibid.* 192). XVIII. mende hasierako idazleak, ordea, idazkera etimologikoaren alde agertuko dira eta leherkari ahostuna bere horretan idatzirik adieraziko dute, bai eta *-z + z-* ere bere horretan utziko (Pikabea, 1993: 184 eta 192, hurrenez hurren). Horrela egingo du Haranederrek ere. Harrietek, berriz, asimilazioa eta bat egitea erakutsiko dizkigu, agian sistema klasikora hurbiltzeko (Axularren estilora, alegia) edota grafia fonologikoa markatzeko (cf. Pikabea, 1993: 193):

-z + b-

He *ez bainaiz* (Jn 17,14) vs. H *ezpainaiz* (Jn 17,14)

-z + d-

He *Ez duçu* (Mt 4,7) vs. H *Eztuçu* (Mt 4,7)

-z + g-

He *ez gaitçatçula* (Mt 6,13) vs. H *ezçaitçatçula* (Mt 6,13)

-z + z-

He *ez çuen* (Mt 1,25), *ez ceitecela* (Mt 2,12), *ez çaitçan* (Mt 5,25) vs. H *etçuen* (Mt 1,25), *etceitecela* (Mt 2,12), *etçaitçan* (Mt 5,25)...

14 *Akhacec* (H; Mt 1,9) eta *Ezekhiasec* (H; Mt 1,10) adibideetan Harrietek *-ch-* > *-kh-* aldaketa egin duela ikus dezakegu. XIX. mendean *-ch-*k Iparraldean /ʃ/ hotsa adieraz zezakeen eta ondorioz, Harrietek aldaketa hori egingo zukeen argi adierazteko /k/ dela izen berezi hauen ahoskera. Nola ez, <h> grafia etimologikoari dagokio, ez hasperenari.

Txistukariekin amaitzeko, apikari eta lepokarien arteko aldaketa nabarmen bat ikus dezakegu Haraneder eta Harrieten testuen artean. Lapurtera klasikoko idazleen lanetan aurki daitekeen bezala (Mounole & Gómez, 2018: 499), Haranederrek apikaria darabil batzuetan lepokariaren ordeztu kontsonante aurrean; Harrietek berriz, lepokariaz aldatzen du: *estiac* (He; Mt 5,4) vs. *eztiac* (H; Mt 5,4), *darostegun* (He; Mt 6,12) vs. *daroztegun* (H; Mt 6,12), etab. Ez dakigu ziur grafia edo fonologia kontua den eta baliteke apikariaren alde egite hori frantses ortografiaren ondorio izatea (Mounole & Gómez 2018; 499). Baina badira salbuespenak, non alderantziz jokatzen duten (Haranederrek <z> eta Harrietek <s>), eta aldaera kontua izan daiteke: *Izpiritu Sainduaren* (He; Mt 1,18) vs. *Ispiritu Sainduaren* (H; Mt 1,18), *hegaziñec* (He; Mt 8,20) vs. *hegastinec* (H; Mt 8,20).¹⁵

Euskal hotsetan gertatzen den palatalizazioari dagokionez, lapurtera klasikoan hori ez islatzeko joera bat ikusten du Josu Pikabeak, eta haren ustez palatalizioa ez adieraztea BN-ren eraginari zor zaio:

“Lapurtera idatziaren historiak erakusten duen grafiak inoiz inon eraginik azaltzen badu behe-nafarreraz idatziriko testuek agertzen duten idazkerari -hein handi batean bederen- so eginez ulertu ahal izango dugu. Eta, areago, ezertan nabarmenki mamitu bada delako eragin hori mendeetan zehar palatalizazioaren galtzean, edo behinik behin ez adieraztean, datzala aitortu beharko litzateke seguru aski.” (Pikabea, 1993: 29).

XVII eta XVIII. mende erdira arteko lapurterazko liburuetan palatalizazioa edo bustidura aurkitzen dugun arren, 1775 ingurutik aurrera eta XIX. mendean batez ere Goyhtche eta beste autore bakarren baten testuetan izan ezik ez dago islaturik (Pikabea, 1993: 29). Honen azalpena dateke literatur hizkuntzaren behe-nafarrerako lerrokatzea edo behe-nafarreratzea XIX. mende hartan (Urgell, 2018: 624), eta hauxe ikusten dugu Harrietek egindako aldaketetan ere: Haranederrek kontsonante palatala adierazirik dakarren hainbat adibide Harrietek palatalik gabeko forma batera aldatzen du: He

15 He-k XVIII. mendean hedatzen hasi zen *izpiritu* aldaera ekartzen du. H-k berriz, euskal testuen tradiziozko *ispiritu* formaren alde egiten du (*OEH*, s.v. *espiritu*). *hegaziñec* (He; Mt 8,20) vs. *hegastinec* (H; Mt 8,20) aldaketaren kasuan, *OEHk* (s.v. *hegazi*) diosku: “Los labortanos y bajonavarros emplean *hegazin* (-tina en Leicarraga y Etcheberri de Sara) y *hegastin*, dándose ambas formas a menudo en un mismo autor”, beraz, aldaera kontu bat izan daiteke, eta ez erakutsi dugun arauaren kontraadibide bat.

ibillico (Mt 2,13), *tentatçailleac* (Mt 4,3), *bill* (Mt 6,19), *Baiñan* (Mt 1,20 eta Jn 19,21), *gaiñerat* (Mt 5,1), *haiñec* (Mt 6,2) vs. H *ibillico* (Mt 2,13), *tentatçailleac* (Mt 4,3), *bil* (Mt 6,19), *Bainan* (Mt 1,20 eta Jn 19,21), *gainera* (Mt 5,1), *hainec* (Mt 6,2), etab.

Ezaguna da XVIII. menderako kostako lapurteran (Azkaine, Getaria eta Bidarten izan ezik) hasperena galdurik zela (Mitxelena, 1977: 204), eta horrek eragina izan zuen inguru horretako literatur sorkuntzan: Haranederrek, lapurtera klasikoan bezala, hasperena mantentzeko joera badu ere, bere hizkerako ohiko hotsa ez dela iradokitzen digu, askotan tradizioz hasperena duten adibideetan ez baitu markatzen: He *baitan* (Mt 1,20, Jn 14,1 eta Jn 17,13), *Icussi* (Mt 2,2 eta Jn 18,26), *Çoazte* (Mt 2,8) edo *aizpa* (Jn 19,25). Testuan galdu-gordean dagoen hots hau Harrietek berrezartzen du bere edizioan: H *baithan* (Mt 1,20, Jn 14,1 eta Jn 17,13), *Ikhusi* (Mt 2,2 eta Jn 18,26), *Çohazte* (Mt 2,8), *ahizpa* (Jn 19,25); agian, lapurtera klasikoa buruan, era “jasoago” edo zuzenago batean idatzi nahiaren ondorioz edo lehen ere ikusi dugun BN-tiko lerratzeagatik; nola ez, bi aukera ditugu eta biak osagarri lirateke.

2.2. Aldaketa morfologikoak

2.2.1. Izen morfologiari dagozkion aldaketak

Izen morfologiari dagokionez, lehenengo ezaugarria artikuluari dagokio, edo artikulua ezari: atributua mugagabea ematea Iparraldeko hizkeretan mantendu den arkaismo bat legez hartzen da (Mounole & Gómez, 2018: 500). Gure konparaketak erakusten digu, baina, XIX. mendeko literaturak indarturiko ezaugarria ere izan daitekeela: Haranederrek dagoeneko forma berria erabiltzen du, atributua mugatuan agertuz, baina Harrietek bere edizioan erabilera zaharraren alde egiten du: *adisquidea* (He; Jn 19,12) vs. *adisquide* (H; Jn 19,12), *Erreguea naiz* (He; Jn 19,21) vs. *erregue naiz* (H; Jn 19,21).

Izenordainei begira, **e-nor*-tik datozkeen izenordain zehaztugabeen hainbat aldaera aurki daitezke hala Euskara Zaharrean nola ekialdeko hizkeretan (Camino, 2013: 93). Gure konparaketan ikusi dugu Harrietek aldaera ezberdina hautatu duela, Haranederrengan *-i-* bokalismoa duenak Harrietek *-e-* bihurtzen baititu: He *nihor* (Jn

17,12), *nihori* (Mt 8,4) vs. H *nehor* (Jn 17,12), *nehori* (Mt 8,4). Izenordainen aldaketekin jarraituz, 2. pertsonako izenordain indartuetan ere formen aldaketa ikus dezakegu Haraneder eta Harrieten testuen artean: *cebonec* (He; Jn 18,31) vs. *ceuec* (H; Jn 18,31), *Ceronec* (He; Jn 18,37) vs. *Cerorrec* (H; Jn 18,37).

Hirugarren graduko erakusletzat Haranederrek *hek* - *hetan* pluraleko forma zaharra darabilen bitartean Harrietek batzuetan berriagoengatik aldatzen ditu; hots, absolutibo pluralaren gainean eraikitako erakusleengatik: *hec* (He; Jn 18,30) vs. *hequieec* (H; 18,30), *hetan* (He; Jn 17,10) vs. *hequietan* (H; Jn 17,10), *hetaric* (He; Jn 17,12) vs. *hequietaric* (H; Jn 17,12). Hala ere, batzuetan Haranederren testuan ere absolutibo pluralaren gainean eraikitako erakusleak ditugu (*hequiequien* Jn 17,12 eta Jn 18,5).¹⁶

Deklinabidera joz, ikus dezakegu hainbat aldaketa egiten dituela kasuen marketan: soziatiboan adibidez, Haranederrek *-kien* kasu-marka darabil, Harrietek berriz, XIX. mendean berriagoa omen den *-kin* (Camino, 2013: 79) baliatzen du: He *Josephequien* (Mt 1,18), *gurequien* (Mt 1,23), *dizcipuluequien* (Jn 18,1 eta Jn 18,2) vs. H *Iosephequin* (Mt 1,18), *gurequin* (Mt 1,23), *dicipuluequin* (Jn 18,1 eta Jn 18,2), etab.

Iparraldean adlatiboak *-ra* eta *-rat* formak erakusten ditu, inoiz esanahi ezberdina izan zuena ('-ra' eta '-rantz' hurrenez hurren; ik. Igartua, 1986), Haranederren testuan, ordea, badirudi *-rat* dela forma bakarra, hala singularrean (*-rat*) nola plural zein mugagabeen (*-etarat*): He *Jerusalemerat* (Mt 2,1), *bathayorat* (Mt 3,7), *alderat* (Mt 8,28), *mundurat* (Jn 18,37) sg.; He *escuetarat* (Jn 18,35), *gucietarat* (Mt 8,19) pl., eta He *batetarat* (Mt 4,8), *bozcariotarat* (Jn 16,20) mgg. Honen parean, badirudi Harrietek *-ra* eta *-rat* bereiztearen alde egiten duela, Haranederren *-rat* asko *-ra* bihurtzen baititu: H *Ierusalemara* (Mt 2,1), *bathaiora* (Mt 3,7), *aldera* (Mt 8,28), *mundura* (Jn 18,37), *escutara* (Jn 18,35), *gucietara* (Mt 8,19), *batetara* (Mt 4,8), *bozcariotara* (Jn 16,20). Beste batzuetan, ordea, Haranederren *-rat* mantendu egiten du Harrietek: H *herrirat* (Mt 2,12), *guibelat* (Jn 18,6),¹⁷ *eremuetarat* (Mt 2,22).

16 *hekiek* bezalako erakusleak Duhalde eta Duvoisinengandik aurrera lekukotzen dira (*OEH*, s.v. *haiek*), hots, XVIII. mende bukaeratik aurrera; beraz, hipotesi bezala pentsa daiteke Robinek berak egindako aldaketa izatea. Tamalez, Haranederren jatorrizko eskuizkribua eskura izan ezean ezin dezakegu hau berretsi.

17 Adibide hau berezia da, Haranederrek dakarren *guibelerat* (He; Jn 18,6) zuzentzen baitu: hala ere, Haranederrek berak Testamentuan zehar *guibelat*-en sei adibide ditu, *gibelerat* bakar horren parean; beraz, badirudi kasu honetan Harrietek Haranederren *usus scribendi*-aren arabera zuzendu egiten

Bizidunen kasuetan, Haranederrek bi aukera ditu bai ablatibo eta baita adlatiboetan ere: atzizki hauek genitiboaren zein absolutiboaren gainean eraikitzen baititu. Ondoko adibideetan ikus ditzakegu absolutiboaren gainean egindakoak: He *Izpiritu Saindua ganic* (Mt 1,20), *higanic* (Mt 2,6)... Hauek, ordea, genitiboaren gainean egindakoak: He *Thamarrenganic* (Mt 1,3), *çure ganic* (Mt 5,30), *gure ganat* (Mt 6,12), *Anasen ganat* (Jn 18,13), *Dabiden ganaco* (Mt 1,17). Bikoiztasun honen aurrean, Harrietek absolutiboaren alde egiten duela ikusten dugu, oro har, Haranederren formak aldatuz: H *Thamar ganic* (Mt 1,3), *çu ganic* (Mt 5,30), *gu ganat* (Mt 6,12), *Anas ganat* (Jn 18,13), *Dabid ganaco* (Mt 1,17). Adlatiboan baina, badira Harrietek genitiboaren gainean eraikitzen dituen adibideak ere, ez bakarrik Haranderren formak ihes egiten diolako, batzuetan Haranederren abs. ere gen. egiten baitu: He *haren ganat* (Mt 3,5), *ez ceitecela bihur Herodesen ganat* (Mt 2,12), *igorri içan nauena ganat* (Jn 16,5) vs. H *haren gana* (Mt 3,5), *etceitecela bihur Heredosen gana* (Mt 2,12), *egorri nauenaren ganat* (Jn 16,5), etab. Amaitzeko, Haranederren testuan beti *-gan* artizkia aurkitu dugu, Harrietek batzuetan, baliabidez aldatu eta *baitha-* dakar: He *banoha Aita ganat* (Jn 16,28), *Ilkhi naiz Aita ganic* (Jn 16,28) vs. H *noha Aita baitharat* (Jn 16,28), *Ilkhi naiz Aita baitharic* (Jn 16,28).

Motibatiboan ere aurreko egoera bera ikusi dugu: Haranederrek genitiboaren gainean eraikitzen du kasua, Harrietek (nahiz eta batzuetan horrela jokatu: *ceren gatic* (H; Mt 5,10), orokorrean, absolutiboaren gainean eraikitzeko joera erakusten du: *ceren gatic* (He; Mt 5,34) vs. *cergatic* (H; Mt 5,34), *icenaren gatic* (He; Jn 15,21) vs. *icena gatic* (H; Jn 15,21). Guzti hauek ikusirik esan genezake Harrietek kasu desberdinak absolutiboaren gainean egiteko tradizio zaharrari¹⁸ eusten diola.

Amaitzeko, gen. + *arau* postposizioaz hitz egingo dugu, beste aldaketa erregular bat aurkitu dugulako honen inguruan: XVI. mendean *araura* aldaeraz aurki dezakegu Etxeparere edota Leizarragaren lanetan, edota *arauez* aldaeraz tarteka Etxeberri Ziburukoarenetan (Pikabea, 1993: 237); *arauera* berriz, XVIII. mendeko idazleetan aurki dezakegu eta hala darabil Haranederrek: *leguearen arauera* (He; Jn 19,7). Horren

duela.

18 Motibatiboan genitibodunak berankorrek dira. Gainera adibide zaharretan ikus daiteke jabego genitiborik gabe motibatiboa absolutiboan agertzen dela, batez ere osagai lexikoetan (Camino, 2008 : 140).

parean, nahiz eta XIX. mendean *arabera* litzatekeen orokorra (Pikabea, 1993: 239), XVI-XVII. mendeetako *arauaz* darabil ere: *legue haren arauaz* (H; Jn 19,7).

2.2.2. Aditz morfologiari dagozkion aldaketak

Aditzari dagokionez, hainbat gauza esan daitezke, ezaguna baita horixe dela euskarak duen aberastasunetako bat, aditz morfologia. Horrela, atal honetan zenbait aldaketa gure ustez interesgarri direnak biltzera mugatu gara, historikoki zein geografikoki interesgarrien datekeenak.

Haranederrek Lapurdiko itsas-hegian eta Lapurdiko hego-ekialdean (Senperen eta Saran) XVII. mende amaieran sortu ziren *gare*, *zare*... adizkiak dakartza, bere hizkeran espero datekeenez; Harrietek, berriz, Axular bezalako idazle klasikoetan diren *gara*, *zara*... forma orokorragoetara jotzen du: *heldu gare* (He; Mt 2,2) vs. *heldu gara* (H; Mt 2,2), *baçare* (He; Mt 4,3) vs. *baçara* (H; Mt 4,3), *ez dire* (He; Jn 7,21) vs. *eztira* (H; Jn 7,21), etab. Izan ere, Lapurdiko testu zaharretan *gara* eta *dira* bezalako adizkiak aurki ditzakegu, baina ez itsas-hegiko autoreengan, Caminori (2018: 100) jarraitzen badiogu.

Beste aldaketa sistematikoa da Haranederren *cedin* forma zaharrarekin duguna, Harrietek sistematikoki *çadin* forma berrira aldatzen baitu: *complitua içan cedingatic* (He; Mt 2,23) vs. *bethea içan çadin gatic* (H; Mt 2,23), *compli cedintçat* (He; Jn 17,12) vs. *bethe çadintçat* (H; Jn 17,12). Berdina gertatzen da *ibili*-ren forma trinkoarekin: *cebillala* (He; Mt 4,18) vs. *çabilala* (H; Mt 4,18), *galdez cebitçala* (He; Mt 2,2) vs. *Galdez çabiltçala* (H; Mt 2,2).

Harrietek ekarritako beste berrikuntza bat bigarren pertsona pluralean dago: forma pleonastikoa darabil, leku batzuetan bezala (Lapurdi eta Gipuzkoa aldean) dagoeneko plurala den *-e* horren gainean *-te* pluralgilea atxikituz: *barkhatcen badiotçatçue* (He; Mt 6,14) vs. *barkhatcen badiotçatçuete* (H; Mt 6,14), *eguin dieçaçuen* (He; Mt 7,12) vs. *eguin dieçaçueten* (H; Mt 7,12).

-n-z amaituriko zenbait aditzetan, Euskara Zaharrean aditz-izenaren egituran *-i-* bat “sortzen” da *-te*-ren aurretik (gaur egun Ipar Euskal Herrian eta Bidasoaldean dirauena, ik. Camino, 2013: 109). Testuan ikus dezakegunez, Haranederrek dagoeneko ez du *-i-*

egiten, Harrietek bere edizioan ekartzen duen bitartean (agian ekialderagoko hizkeren¹⁹ eraginagatik): *içateco* (He; Mt 5,13) vs. *içaiteco* (H; Mt 5,13), *emateco* (He; Mt 5,15) vs. *emaiteco* (H; Mt 5,15), *erraten cioten* (He; Jn 19,17) vs. *erraiten çaion* (H; Jn 19,17).

Etorkizuna adierazteko orduan, ikus dezakegu Haranederrek Lapurdiko usadioa duela. *-n-z* amaitzen diren aditzetan *-(r)en* dugu: *Emanen darozquitçut* (He; Mt 4,9), *içanen baidire* (He; Mt 5,5)... eta gainerako testuinguruan Haranederrek *-ko*. Harrietek, ordea, *-(r)en* atzizkiaren erabilera gainontzeko partizipioetara hedatzen du (agian ekialdetik hedaturiko ezaugarria²⁰ hau ere), Haranederren *-ko* asko *-ren* bihurtuz bere edizioan: *eçagutuco duçue* (He; Jn 14,7) vs. *eçaguturen duçue* (H; Jn 14,7), *othoiztuco dudala* (He; Jn 16,26) vs. *othoizturen dutala* (H; Jn 16,26), etab.

Aditz nagusi eta laguntzailearen hurrenkerari dagokionez, Haranederrek perpaus asertiboetan osagai baten hanpadura handi denean galdegaiaren ondotik aditz laguntzailea ezartzen du aditz nagusiaren aurrean (Camino, 2013: 112); Harrietek, ordea, hurrenkera estandarraigatik aldatzen du: *ene baquea darotçuet ematen* (He; Jn 14,27) vs. *neure baquea emaiten darotçuet* (H; Jn 14,27), *Çureac ciren eta niri darozquidatçu eman* (He; Jn 17,6) vs. *Çureac ciren, eta niri eman darozquidatçu* (H; Jn 17,6).

Aginterazko perifrasiari begira Haranederrek *e-* gabeko adizki aferesidunak erabiltzen dituela ikusi dugu (*çaçu*, *çacitçu/çatçitçu*, *çatçitçue*), Harrietek ordea *e-*dun formengatik aldatuko ditu: *iraz çaçu* (He; Mt 5,29) vs. *iraiz eçaçu* (H; Mt 5,29), *har çacitçu haurra eta bere ama* (He; Mt 2,20) vs. *har eçatçu haurra eta bere ama* (H; Mt 2,20), *beguira çatçitçu* (He; Jn 17,11) vs. *beguira eçatçu* (H; Jn 17,11), *Maita çatçitçue çuen etsayac* (He; Mt 5,44) vs. *Maitha eçatçue çuen etsaiac* (H; Mt 5,44)...

Beste aldaketa aipagarri bat du Harrietek aditz trinkoekin, Haranederrek perifrastikoa duen zenbaitetan Harrietek trinkoaren alde egiten du: *gorderic eguiten dena icusten duenac* (He; Mt 6,4) vs. *gordean dakhusanac* (H; Mt 6,4), *egon dadintçat* (He; Jn 14,16) vs. *dagoentçat* (H; Jn 14,16), *darotçuet erraten* (He; Jn 16,20) vs.

19 Nafarroa Beherean orokorra da aditz-izeneko *-ite* morfema, Lapurdiko herrietan ere *-ite* dugu, baina ekialdean bakarrik, ez mendebaldean (Camino, 2004: 471).

20 Nafarroa Behereko idazki zaharretan geroaldiko *-(r)en* atzizkia dugu, *-n-z* bukatzen diren aditzetan ez-eziz, *-tu* edo *-i* nahiz beste partizipio batzuk dituztenengan ere (Camino, 2013: 109).

diotsuet (H; Jn 16,20), etab. Batzuetan alderantzizko adibiderik ere badago: *Ciotsaten* (He; Jn 19,21) vs. *Erran cioten* (H; Jn 19,21), *dathorquenean* (He; Jn 16,4) vs. *eltcen denean* (H; Jn 16,4).

Haranederrek batzuetan **edin* aditz nagusi bezala erabiltzen duela dirudi, [aditz partizipioa + (a)k + **edin*] perifrasi batean (bide batez, Mounolek (2011) aipatzen ez duena); Harrietek ordea, ikusten du hor aditz nagusia falta dela²¹ eta *izan* aditz trinkoa behar duela, hots, aditz trinko bat: *ni naitequen toquian* (He; Jn 14,3) vs. *ni naicen lekhuian* (H; Jn 14,3), *diteque glorificatua* (He; Jn 15,8) vs. *goretsia da* (H; Jn 15,8), *adisquideac çaitetzquete* (He; Jn 15,14) vs. *adisquideac çarete* (H; Jn 15,14).

Amaitzeko, Haranederrek *etorri* aditza NOR jokoarekin darabil, eta Harrietek moldatzen ditu hainbat adibide NOR-NORI jokoarekin: *ethorrico naiz* (He; Jn 14,3) vs. *ethorrico natçaitçue* (H; Jn 14,3), *ez da ethorrico çuen ganat* (He; Jn 16,7) vs. *etçaitçue ethorrico* (H; Jn 16,7).

2.3. Sintaxian izandako aldaketak

Euskara Arkaiko eta Zaharrean, aditz-izena buru duten perpausen osagarria genitiboan agertzen da, eta gaur egun oraindik bizirik dirau lapurtera, behe-nafarrera, zubereraz eta Nafarroa Garaiko ekialdeko hizkeretan (Camino, 2011: 104 *ap.* Mounole & Gómez, 2018: 522). Haranederrek, batzuetan ezaugarria duen arren: He *leguea edo propheten desseguiterat* (He; Mt 5,17), *haren adoratcerat* (He; Mt 2,8)... baditu hainbat adibide non TOGen-ik ez duen. Halakoetan, Harrietek iparraldeko gramatikara lerratzen ditu: *ethorrico çare çure ofrenda eguiterat* (He; Mt 5,24) vs. *ethorrico çara çure emaitçaren escaintcera* (H; Mt 5,24), *lekhua preparatcerat* (He; Jn 14,2) vs. *toquiaren aphaintcerat* (H; Jn 14,2).

Mendeko perpausen menderagailuei dagokienez, Haranederren testuan xede edo helmuga kutsua duten denbora adizlagunetan *-kotch* morfema ageri da (Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian bezala; Camino, 2013: 100): He *erran çaroenecotch* (Jn 18,6), *ilkhi cirenecotch* (Mc 6,54). Harrietek berriz, batzuetan moldatu eta *-ko* bihurtzen

21 XVII eta XVIII. menderako **edin* ez baitzen erabiltzen aditz nagusi bezala, ondorioz Harrietek *izan* aditza ekartzen du.

du, beste batzuetan *-kotz* mantenduz: H *aiphatu çueneco* (Jn 18,6) *ilkhi cirenecotz* (Mc 6,54).²²

Bestetik, Haranederrek dakartzan izenordainak kentzen ditu Harrietek: *çuc niri mundutic eman darozquidatçun guiçonei* (He; Jn 17,6) vs. *mundutic bereci darozquidatçun guiçonei* (H; Jn 17,6), *nic hequientçat dut othoitz eguiten* (He; Jn 17,9) vs. *hequientçat othoitcez nagotçu* (H; Jn 17,9)...

Esaldietako elementuekin jarraituz, lekuz aldatzeko joera ikusten zaio Harrieti, gehienbat subjektu eta objektuekin. Haranederrek aditzaren aurretik duen subjektuak mugitzen ditu ondoren jartzeko: *nic çu glorificatu içan çaitut lurraren gainean* (He; Jn 17,4) vs. *gorets-araci çaitut nic lurraren gainean* (H; Jn 17,4). Objektuekin kontrara, Haranederrek aditzaren ondoren jartzen duenean, Harrietek aditzaren aurrera darama: *ceren hec baidute icussico Jaincoa* (He; Mt 5,8) vs. *ceren hec Iaincoa baitute ikhusico* (H; Mt 5,8). Batzuetan alderantzizko adibide gutxi batzuk ere baditugu, non Haranederrek aditzaren ostean jarritako subjektua Harrietek aditzaren aurrera darama: *Beguiratcen nituen nic* (He; Jn 17,12) vs. *Nic beguiratcen nituen* (H; Jn 17,12); eta alderantziz, Haranederren aditz aurreko objektua Harrietek aditzaren atzera darama: *Gauça hauc erran daruzquitçuet* (He; Jn 16,33) vs. *Erran darozquitçuet hitz hauc* (H; Jn 16,33).

2.4. Aldaketa lexikoak

Lexikoari begira, jakina da Lehen Euskara Modernoaren garaian Euskal Herrian euskal lexikoaren aberastasuna eta emankortasuna ustiatu nahi zituen garbizaletasun neurritsu bat hedatu zela (Urgell, 2018: 628), hala, Harriet joera horren barruan kokatzen da eta Haranederrek zerabiltzan hainbat mailegu euskal ordainarengatik ordezkatzan ditu:

²² Hau baieztatu ahal izateko, laginean agertzen ez diren (hots, azterturiko orrialdeetatik at dauden) edizioako gainerako adibideetara jo dugu.

| Haraneder | Harriet | Haraneder | Harriet |
|--------------------------|------------------------------------|-----------------------------|--|
| <i>Aleguera çaitetze</i> | <i>Boz çaitetze</i> (Mt 5,12) | <i>justua</i> | <i>çucena</i> (Jn 17,25) |
| <i>amarratu</i> | <i>estecatu</i> (Jn 18,12) | <i>lampa</i> | <i>argui</i> (Mt 5,15) |
| <i>arbolaren</i> | <i>çuhaitcen</i> (Mt 3,10) | <i>misericordia</i> | <i>urricalmendu</i> (Mt 5,7) |
| <i>barcu</i> | <i>untci</i> (Mt 4,21) | <i>obedituco du</i> | <i>asainen du</i> (Mt 6,24) |
| <i>beztitcecoa</i> | <i>iaunztura</i> (Mt 6,25) | <i>obrac</i> | <i>ikhusgarriac</i> (Jn 14,12) |
| <i>bestimenda</i> | <i>iaunztura</i> (Jn 19,5) | <i>ofrenda</i> | <i>escaintça</i> (Mt 5,23) |
| <i>berthutez</i> | <i>indarrez</i> (Mt 1,18) | <i>offrendatu</i> | <i>escaini</i> (Mt 2,11) |
| <i>borondatea</i> | <i>nahia</i> (Mt 6,10) | <i>orientean</i> | <i>iguzquia ateratcen den bazterretan</i> (Mt 2,2) |
| <i>bothere</i> | <i>escua</i> (Jn 17,2) | <i>parterat</i> | <i>eremuetarat</i> (Mt 2,22) |
| <i>complitu</i> | <i>bethe</i> (Mt 2,17) | <i>partitu</i> | <i>ioan</i> (Mt 2,13) |
| <i>confesatcen</i> | <i>aithortcen</i> (Mt 3,6) | <i>penitencia</i> | <i>urriquizco obrac</i> (Mt 3,2) |
| <i>desohoratu</i> | <i>laidostatu</i> (Mt 1,19) | <i>pobre direnac</i> | <i>beharrac direnac</i> (Mt 5,3) |
| <i>doctrinaz</i> | <i>erakhaspenaz</i> (Jn 18,19) | <i>sabbathoaren bezpera</i> | <i>aphaintceen eguna</i> (Jn 19,14) |
| <i>Errecibitu dute</i> | <i>içana dute</i> (Mt 6,5) | <i>secretuqui utci</i> | <i>ichilic bere ganic khendu</i> (Mt 1,19) |
| <i>esposatua</i> | <i>ezcondua</i> (Mt 1,18) | <i>sinagoguetan</i> | <i>bilkhuetan</i> (Mt 6,2) |
| <i>gloria</i> | <i>Edertasun</i> (Mt 4,8) | <i>tropela</i> | <i>andana</i> (Jn 18,3) |
| <i>glorifica çaçu</i> | <i>gorets-araz eçaçu</i> (Jn 17,1) | <i>thresorac</i> | <i>onthasunac</i> (Mt 6;19) |
| <i>informa çaitetze</i> | <i>galde eguiçue</i> (Mt 2,8) | <i>tribunalean</i> | <i>alkhian</i> (Jn 19,13) |
| <i>jenderacione</i> | <i>guiçaldi</i> (Mt 1,17) | <i>tunica</i> | <i>soin gainecoa</i> (Jn 19,23) |

Horrez gain, bi joera ikus ditzakegu Harrieten aldaketetan: alde batetik, ekialderanzko lerratzea erakusten du; bestetik aldaera berrien alde egiten du.

Ekialdeko ezaugarria omen da *emazte* ‘emakume, neskato’ adierarekin erabiltzea (*OEH*, s.v. *emazte*): Haranederrengan *emazte* hitza ‘esposa’ adierarekin aurkitzen dugu gehienetan (*bere emaztea*, Mt 19,29), eta ‘emakume’ adierazteko orokorrean *nescato* darabil: *nescatoari* (He; Jn 18,16), *nescato atheçain cegoenac* (He; Jn 18,17). Harrietek berriz, *emazte* aldaeratik aldatzen du Haranederren *neskato* hitza: *emazteari* (H; Jn 18,16), *athaltçain emaztequiac* (H; Jn 18,17). *Urre*, tradizioz hasperendun hitza izanik ere, Haranederrek hasperen gabe idazten du; Harrietek ordea, hasperena “berreskuratzen” du, Z eta BN-eratik XIX. mendetik aurrera autore lapurtarregana hedaturiko ezaugarria dugu (*OEH*, s.v. *1 urre*): *urreea* (He; Mt 2,11) vs. *urhea* (H; Mt 2,11). Honen pareko da He-ren *soldaduec* (He; Jn 19,2 eta Jn 19,23) vs. *soldadoec* (H; Jn 19,2 eta Jn 19,23). XIX. mende hasiera arte *soldadu* dugu lapurtar idazleengan. Z, GN eta BN-n berriz *soldado* aldaera dugu (*OEH*, s.v. *soldadu*). Honek erakusten digu baita Harrietek berriz ere Nafarroa Beheretik hedaturiko ezaugarria hobetsi duela.

Forma berriei dagokionez, Haranederren testuan *goan* aurkitzen dugu: *goan* (He; Mt 2,9 eta Jn 18,1) eta Harrietek berriz *goan* horiek *ioan* bihurtu ditu: *ioan* (H; Mt 2,9 eta Jn 18,1). Dirudienez XVII. mende amaierako eta XVIII. mendeko autore lapurtarren *goan* eta *gan* aldaerak (ik. *OEH*, s.v. *joan*), forma orokorragoatik moldatzen ditu. *fiko* aldaera dugu Leizarragatik XVIII. mende amaiera arte, autore zuberotarretan izan ezik. XVIII. mendean *fiko* aldaera galdu omen zen eta iparraldean forma ohikoagoa bihurtu zen *phiko* aldaera (*OEH*, s.v. *1 piku*). Aldaketa honen isla dugu Harrieten edizioan: *ficoac* (He; Mt 7,16) vs. *phicoac* (H; Mt 7,16).

Ondorengo ezaugarri hau, zalantzazko ezaugarria dugu, Haranederrek *bai-* eta *bait-* formak erabiltzen ditu erlatibozko esaldiak markatzeko: *baida* (He; Mt 5,3), *eman baidaroztet* (He; Jn 17,8) alde batetik eta *baitu* (He; Erm 11,7) bestetik. Harrietek berriz menderagailu honek duen forma bakartzat *bait-* du, horregatik He-ren *baida* (He; Mt 5,3) eta *baidaroztet* (He; Jn 17,8) aldatzen ditu H-ek: *baita* (H; Mt 5,3), *baitaroztet* (H; Jn 17,8). Honen azalpena, izan daiteke *bait-* vs. *bai-* bi aldaera direla (horregatik ekarri dugu hona), baina baliteke ezaugarri fonetiko²³ bat izatea.

23 *Bait-* partikulari dagokionez, XVI eta XVII. mendeetan lapurteraz *bait-* partikularen ondoren *d-* leherkari ahostuna zegoenean asimilazioa gertatzen zen. Baina, XVIII. mendeko hainbat autoreengan,

3. ONDORIOAK

Hasieran esan bezala, lan honen xedea Harrietek Haranederren edizioan egindako aldaketen nondik-norakoak aztertzea izan da, moldaketak nolakoak izan diren ikusi eta Harriet editorearen irizpideak zeintzuk izan diren jakiteko. Ustez ondorioak interesekoak izan daitezke, ikusi baitugu aldaketak testuan zehar agertu diren irizpide hauen arabera gertatu direla: (1) XVIII. mendeko ezaugarriak utzi eta “lapurtera klasikorantz” lerratu da, (2) Lapurdiko kostako hizkeratik aldendu eta ekialderagoko hizkera batera jo du eta (3) XIX. mendean gertaturiko hizkuntza idatziaren aldaketak Harrietek bere egiten dituela, hots, berrikuntzak dakartza.

Alde batetik, Harrietek batzuetan testua ez XVIII. mendeko lapurterara, baina lapurtera klasiko (LK) “kanonikorantz” (nolazpait esateagatik, Axularren LK-ra, alegia)²⁴ bideratzen du: Haranederren hizkeraren berrikuntza batzuk kendu eta forma zaharragoen alde egiten du. Bai hitz-elkartu eta eratorrietan, eta baita ahozkoan bilakabide fonetikorik gertatzen den testuinguruetan (hots, txistukari gehi leherkari ahostun edo bi txistukari biltzen direnean) Harriet sistema klasikorantz hurbilduz, hitzak bildu eta grafia fonologikoaz markatzen dizkigu. Haranederrek dituen *gare* eta *dire* bezalako adizkiak ordezkatzeko Axularren eta bere garaiko testuetan dauden *gara* edo *dira* adizki orokorragoengatik. Haranederrek atributua mugatuan agertzen duenean, Harrietek Iparraldeko hizkeretan gorde den arkaismoaren (Mounole & Gómez, 2018: 500) alde egiten du, hots, atributua mugagabea dakar (XIX. mendeko literaturak indarturiko ezaugarria izan liteke, apika). Era berean, ikusi dugu genitiboaren gainean eraturiko hainbat deklinabide marka (motibatiboa edota bizidunen kasu ezberdinak) Harrietek absolutiboaren gainean eraikitzeko tradizio zaharrari eusten diola, oro har.

Beste hainbat aldaketetan berriz, berdín uler genezake Harrietek Axularren euskararantz hurbiltze horren bidez edota ekialderagoko hizkera baten aldeko lerratzeagatik. Izan ere, ezaguna da Lehen Euskara Modernoan literatur lapurtera indartu zela XIX. mendean, baina ez tradiziozko lapurtera klasikoaren bidetik,

hala nola, Etxeberri Sarakoa, Churio eta gurera ekarriz, nola ez, Haranederrengan ere bi eratako formak agertuko zaigu (Pikabea, 1993: 197): *baida* (He; Mt 5,3) eta *baitu* (He; Erm 11,7). Bestetik, XIX. mendeko idazleek tradizioari eutsiz, XVIII. mendean gertaturiko aldaketa horiek alde batera utzi eta asimilazioari eutsiko diote (Pikabea, 1993: 197), Harrietengan ikus dezakegun bezala.

24 Gauza jakina da Harrietek Axularren lanak ezagutu zituela, eta.

ekialderagoko hizkeretako ezaugarriak bilduz baizik, ondoren “nafar-lapurtera literarioa” deituko den hizkerarekin (Urgell, 2018: 623-624). Harrietek horrekin bat egiten du, hainbat aldaketetan ekialdetiko ezaugarrien hedatzea ere egon baitaitekeelako oinarrian. Hala, ondorengo ezaugarri hauetan lehen aipatu bi arrazoiek bat egingo lukete: alde batetik, kostako lapurteran XVIII. menderako galdua zen hasperena berrezartzen du, bestetik, aditz morfologian He-k dagoeneko *ematen* bezalako aditzizenak dakartza *-n-z* amaituriko partizipioekin baina Harrietek *-ite-gatik* (hots, *emaiten-gatik*) ordezkutzen ditu, Nafarroa Beherean orokorra zena orduan (Camino, 2004: 471). Era berean, [genitibo + *arau*] postposizioaren XVI. mendeko instrumentaldun aldaera (H *legue haren arauaz*; Jn 19,17) dakar ere. Hiru ezaugarri hauetan Harriet forma zaharrera itzultzen da ala Nafarroa Beherean gorderik zeuden arkaismoak ekartzen ditu? Bi aukerak dira posible. Antzeko galdera genuke *urree* > *urhea* hasperendun aldaera ekartzearekin, baina kasu honetan *OEHk* lagundu gaitu baieztatzen ekialdetik hedatu omen zela XIX. mendean zehar autore lapurtarren testuetara.

Bestelakoetan argia da XIX. mendean gertaturiko hizkuntza jasoaren ekialderanzko lerratze horren ezaugarriak ditugula Harrieten aldaketetan: Haranederren kontsonante palatalak kendu egiten ditu Harrietek eta **e-nor*-tik datozen izenordain zehaztugabeetan, He-k dakarren *nihor* Harrietek *nehor*-ekin trukutzen du, BN-n orokorragoa dena (*OEH*, s.v. *inor*). Etorkizuna adierazteko *-n-z* amaituriko hitzetan ez-ezik, gainerako testuinguruan ere *-(r)en* darabil Harrietek (*ikusiren* edo *ezaguturen*), Haranederrek Lapurdiko euskararen arauen arabera duen *-ko* ordezkatur. Amaitzeko, lexikoan ere ikusi dugu Harrietek ekialdeko *emazte* ‘neskato’ (H; Jn 18,16) eta Z eta BN-ko hizkeretako *soldado* (H; Jn 19,2 eta 19,23) aldaerak dakartzala.

Amaitzeko, lehen esan dugun hirugarren irizpide nagusia litzateke XIX. mendeko berrikuntzak ditugula, eta Harrietek hainbat ezaugarri zahar ordezkutzen ditu, testua modernotuz: grafiari dagokionez, frantsesetik letorren <ss> bikoitza kendu egiten du eta bokal arteko <y> grafema <i>-rekin aldatu; apikari afrikatuetan, Haranederrek <x> eta <tx> zaharrak ditu noizbehinka eta Harrietek <s> eta <ts> grafemengatik ordezkutzen ditu; azkenik, mailegatutako hitzen grafiari begiratuz ere, He-k hizkuntza emailearen grafia mantentzen duen bitartean, H-k idazkera fonologikoaren alde egiten du. Ezaugarri guzti hauen atzean, nolazpait, Lehen Euskara Modernoan euskarazko grafia propio horren bilaketa egon daiteke. LK-ko idazleek kontsonante aurrean lepokariaren orde

apikaria erabiltzen dute (Mounole & Gómez, 2018: 499), eta hauxe dugu He-ren hainbat adibidetan ere; Harrietek, bere aldetik, lepokariaz ematen ditu. He-k daukan *-kien* soziatibo marka Harrietek *-kin* markarekin ordezkaten du, XIX. mendeko testuetan berriagotzat dena (Camino, 2013: 79). Aditz morfologian ere, He-k dakartzan *zedin* eta *zebillala* bezalako adizkiak edota *-zue* pertsonaren marka orokorrak aldatzen ditu Harrietek eremu hartako berrikuntzadun formekin, *zadin* eta *zabilala* formekin eta *-zuite* marka pleonastikoarekin hurrenez hurren. Horrez gain, He-k aditz laguntzailea aditzaren aurretik ezartzen duenean Harrietek hurrenkera estandarraigatik ordezkatu du, aditz laguntzailea aditzaren ondoan ezarriz. Gutxi badira ere, adibide batzuetan **edin*-en adizkiak aditz nagusi bezala erabiltzen zituela dirudi, eta Harrietek hauek *izan* aditzerroa duten formengatik ordezkatu ditu. Lexikoan berriz, ikusi dugu Harrietek *goan* eta *fiko* aldaera zaharrak *ioan* eta *phiko* berriagoengatik aldatzen dituela, eta berrikuntzen artean sar genezake ikuspegi garbizalea ere, eta argi ikusten zaio Haranederren hainbat erdal-hitz euskal ordainaren bidez aldatzeko irizpidea.

Gure azterketak erakutsi dizkigun beste hainbat aldaketen arrazoi zehatza ezin izan dugu aurkitu, baina aurrekoen antzerako azalbidea izan beharko lukete. Haranederren testuan *-rat* da ablatibo marka eta *-kotz* helmuga kutsuko adizlagunen atzizkia, (ia) sistematikoki: Harrietek berriz, agerpen batzuetan (baina ez guztietan) *-rat* > *-ra* eta *-kotz* > *-ko* biurtzen ditu eta atzizkien bikoiztasuna sortu.²⁵ Bizidunen kasu-markekin, Haranederrek beti *-gan* artizkia darabilen arren, Harrietek batzuetan *baitha*-ren alde egiten du. Aginteran, Haranederrek adizki aferesidunak erabiltzen ditu (*zazu*), eta Harrietek *ezazu* erakoekin ordezkaten ditu. Beste aldaketa sistematikoa da Harrietek aditz trinkoen alde egiten duela edota *etorri* aditzaren erregimena aldatzen duela, Haranederrek NOR jokoarekin darabiltzanak Harrietek NOR-NORI jokoaz dakartza. Sintaxian, He-k ez du beti TOGenA erakusten, eta hauetan Harrietek Iparraldeko gramatikara lerratzen ditu, agian zuzentzearen.

Azaldugabeko ezaugarriekin amaitzeko, ikusi dugu Harrietek izenordainak kentzeko joera erakusten duela, bai eta subjektu eta objektuak mugitzeko joera: He-k subjektua edo objektua aditzaren aurretik ezartzen duenean Harrietek aditzaren ondora aldatzen du, eta alderantziz, He-k aditzaren ondoan jartzen duenean Harrietek aditzaren

25 Bikoiztasun honen atzean arrazoi gramatikalak egon daitezke, nola ez; baina lan honek dituen espazio baldintzengatik ezin izan dugu honetan nahi beste sakontzerik izan.

aurrera ekartzen du. Arrazoia ez dakigu zein datekeen, agian kontu estilistikoa, baina aldaketa sistematiko zamarra den heinean, garrantzitsua iruditu zait lan honetan aipatzea.

Konparaketa lan honek helburuetatik kanpoko ondorioak ere ekarri ditu, ikusi ahal izan baitugu Robinen eskuizkribuan ginetik eginiko zuzenketa batzuk ageri direla, Altunak edizioan aipatzen ez dituenak: ikusi dugu norbaitek *i-* > *j-* eta *-tc-* > *-tz-* aldatzen dituela Robinen eskuizkribuan, Harrietek <*i*> eta <*tc*> zaharrak mantentzen dituen bitartean. Ondorioz, pentsa genezake Harrietek edizioa egin ondorengo zuzenketak izan daitezkeela. Horrez gain, kontuan izan behar dugu ez dugula Haranederrek berak egin zuen eskuizkribua, Robinek hogeita hamar bat urte geroago egindako kopia bat baizik, eta baliteke Haranederri egotzitako zenbait ezaugarri benetan Robinek berak egindako aldaketak izatea. Horren zantzua harrapatu dugulakoan gaude eskuizkribuan barrena ageri diren *hekiek* ‘haiek’ bakan batzuetan, normalean Haranederrek *hek* baitarabil, eta proposatu genezake agian Robinen esku “modernoa” egon daitekela atzean; alabaina, Haranederren eskuizkribu originala agertu ezean, lan filologikoa baino ez genuke hau baieztatu edo ezeztatzeko.

Lan honek zerbait erakutsi badit, baina, hau da, lan filologikoa oraindik egiteke daudela euskal testuetan, bereziki “lapurtera klasikoa” deitzen den konstruktua horren barneko testuekin, eta horiei neure alea gehitzen saiatu naiz ondoko lanarekin. Hainbat ezaugarri azalpena bilatzeko orduan iruditu zait ez dagoela informazio nahikoa lapurterak izan duen bilakabidearen inguruan eta nire ustez lapurteraren bilakabideak ezaugarri interesgarriak ekarriko lizkioke euskararen historiari. Horrez gain, lan honi esker ikasketetan zehar landutako hainbat alderdi praktikan jarri eta gehiago sakondu ditut eta azterketa filologikoen eskatzen duten esfortzua eta lana nolakoa den ikusi dut.

4. BIBLIOGRAFIA

Altuna, P., 1987, “Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea”, *FLV* 49, 65-96.

Altuna, P., 1990, *Jesu Christoren evangelio saindua*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Camino, I., 2004, “Nafarroa Behereko euskara”, *FLV* 97, 445-486.

Camino, I., 2008, “Nafarroa Behereko euskara zaharra”, *ASJU* 42:1, 101-169.

- Camino, I., 2013, *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren Guiristinho perfeccioniaren practicaren pparte bat (1782). Edizioa eta azterketa* (Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta 6), Bilbo: Euskaltzaindia & UPV/EHU.
- Camino, I., 2018, “Hizkuntza ospearen eta eragin lektalaren zirurikak Ipar Euskal Herriko jende mintzo eta idazkietan”. *ASJU*, 52, 93-131.
- Daranatz, J.B., 1910, “Duvergier et Mihura, traducteurs ecclésiastiques basques du XVIIIe siècle”. *RIEV*, IV, 478-480.
- Haraneder, ca. 1740 [1770], *Jesu Christoren evangelio saindua* [Robin apezaren kopia eskuizkribatua], Baionako Mediateka, LAF.311 signatura. <https://mediatheque.bayonne.fr/iguana/www.main.cls?surl=search&p=6d96bc91-7382-4e7b-8f18-f40562b734fd#recordId=1.240501&srchDb=1> [2021/05/25]
- [Harriet, M. & Dassance], 1855, *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria lehenago J. N. Haraneder, Done Ioane Lohitsuco Jaun aphez batec escuararat itçulia; Orain artha bereci batewuin, garbiquiago, lehembicico aldicotçat aguer-aracia, laphurtar bi iaun aphecec; iaun aphezpicuaren baimenarequin*, Baiona, E. Lasserre.
- Igartua, M., 1986, “Leizarragarengan -ra eta -raten erabilerari buruz”, *ASJU* 20:3, 897-902.
- Knörr, H., 2003, “Maurice Harriet Joanes Haranederen galbahari: Testament Berria (1855)”. *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II)*. Bilbo: Euskaltzaindia, 125-156.
- Lafitte, P., 1964, “Deux traductions de l’Enfant Prodigue ou Jean de Haraneder revu par Maurice Harriet”, *Bulletin du Musée Basque* 23.
- Lafitte, P., 1975, “XVIIgarren mendeko Ioannes Haraneder fraidea”. *Euskera* 20.
- Mitxelena, K., 1977 [1990], *Fonética histórica vasca*, 2. arg. *ASJU*-ren Gehigarriak 4, Donostia.
- Mounole, C., 2011, “Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique” UPV/EHUko doktorego tesia.
- Mounole, C. & R. Gómez, 2018, “Euskara zahar eta klasikoa”, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 490-527.

- OEH= Mitxelena, K., 2019, *Orotariko Euskal Hiztegia* [online bertsioa].
www.euskaltzaindia.eus/oeh [2021/04/28].
- Pikabea, J., 1993, *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*. Donostia:
UPV/ EHU & Kutxa Fundazioa.
- Urgell, B., 2018, “Lehen Euskara Modernoa”, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A.
Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 543-657.
- Urgell, B. & K. Ulibarri, 2020, “Lapurtera klasikoa”, *Euskararen historia II*
irakasgairako apunte argitarabeak.